

**BERBAROTARRA  
18. zk. 1998ko uztaila**

## MARTZAAKO ETXEA ZABALIK

Atxondo bailaran, Berbaroko bazkideok biltoki berria daukagu. Ekainaren 7az geroztik Martzaako etxeak atek zabalik ditu eta Berbaroko bazkideoi aukera asko eskeintzen dizkigu.

Gaztetxoen aisialdirako leku faltarekin topo egin du askotan elkarteak. Horri irtenbidea eman asmoz leku asko begiratu da eta azkenean Martzaako etxea aukeratu da. Baina gaztetxoen aisialdira mugatu beharrean, Berbaroko bazkide eta orokorrean euskaltzaleentzako elkargune eroso eta atsegina bihurtu dugu Martzaako etxea.

**Kurutziaga Ikastolarekin elkarlana**  
Martzaako etxeak aterpetxe izaten jarraitzen du, orain arte Bilboko Gotzaitegiaren esku izan denean



moduan. Horrek gaztetxoen aisialdirako kanpamentu moduan erabiltzeko aukera eskeintzen digu. Baina etxearen erabilpena elkarte barrura mugatu beharrean, beste talde batzuei zabalduko zaie aukera. Kurutziaga Ikastolaren lankidetzeta eta proiektuarekiko elkarlana garrantzitsua izango da, ikastetxe eta eskolaumeei zuzendutako ekintzak antolatu eta aterpetxearen erabilera zabaltzeko.

### *Zer egin dezaket nik?*


- ✓ Haurrekin arratsalde pasa joan. Umeentzako hainbat joku jarri dira eta horiekin dibertitzen diren bitartean, etxearen kanpoaldean jarritako mahai eta sonbrilapeetan eskuragai dauden egunkari eta aldizkariak irakurri, lagunekin berba egin edota freskagarri edo kafetxoren bat hartu.
- ✓ Inguruak eskeintzen dituen paseo edo mendi-ibilaldietarako aukerak aprobetxatu eta irteera edo helmuga lekua Martzaa aukeratu. Hamaiketako edo merienda-afaria egiteko lekua ere izan dezakezu bertan.
- ✓ Bazkalosteko karta-jokoa edo tertuliarako leku lasaia eta eroso badago...
- ✓ Kanpotik bisitan datozen lagunentzako

ostatu merkea izan daiteke. Etxearen lehen solairuan 30 lagunentzako lekua dago literetan. Lo egiteko lekua bakarrik, edota gosari-bazkari-afari zerbitzua ere izan daiteke aukeran.




✓ Koadrillak asteburu osoa, gau eta egun, elkarrekin bertan pasatu.

✓ Asteburuetak jardunaldiak antolatzeko leku aproposa izan daiteke elkarte edo talderen batetako partaide edo laguntzaile bazara.




Irakurri duzu, aukera asko eskeintzen du Martzaako etxeak. Orain ikustea falta zaizu. Eguerditik gaurdira, asteko zazpi egunetan daukazu horretarako aukera.



# Aterpetxea auzolanean egokitu dogu



**Martzaako etxea  
bolondres askoren esku  
lanari esker altxatu da  
berriro. Kurutziaga  
Ikastolako guraso eta  
ikasleak, Berbaro  
Elkarteko bazkideak eta  
Eraz aldizkariko  
langileek lagundu dute.  
Guztioi eskerrik asko.**



uztailaren 14an, asteartea  
**ETA ZER!**  
rock talde berri berriztatzearen kontzertu akustikoa,  
iluntzeko 8etan

uztailaren 15ean, asteazkena  
**JON ARRETXE**  
Familia emigrazioa, Amiztasunaren esleratza bost egunigo dauzu  
kita zaituz zinu zirel iluntzeko 8etan abarriko gara

uztailaren 16an, osteguna  
**ENE BADA!**  
musika taldearen jaialdia  
gaueko 10etan

**BERBARO** ELKARTEA

## Indexpla aplikazio informatikoa kalean

Erakundeetan euskararen normalkuntzarako planak egiteko metodologia jasotzen duen eskuliburua eta Indexpla aplikazio informatikoa kaleratu berri dute EKB eta Topaguneak. Oso labur esanda, Indexpla aplikazio informatikoa erakunde, enpresa, eskola eta abar batek une jakin batean duen hizkuntz normalizazio maila objektiboki neurtzeko eta plan baten ondorioz gertatutako bilakaera ezagutzeko katalanak sortutako tresna da. Euskal Herriko hainbat pertsonak osatutako lantalde batek egokitu eta kalean da dagoeneko. Berbarora jo dezakezue programa honen berri izateko.

## Kultur errota

Euskara Elkartearen Topagunea hasi da bere fruituak ematen. Formato txikiko ekitaldiak elkarte askotan antolatzen direla ikusirik "Kultur Errota" zirkuitoa martxan jarriko du uda ostean. Hamar bat elkarte parte hartuko dute printzipioz proiektu honetan, nahiz eta apurka apurka gehitzen joango diren. Aretxabaletako Loramendi, Bergarako Jardun, Bilboko Kafe Antzokia, Durangoko Berbaro, Elgoibarko Izarra, Lasarteko Ttakun, Oñatiko Laixan, Arrasateko AED eta Geu Gasteizkoek. Kultur Errota izeneko zirkuito honek tokian tokiko kulturgile amateur zein profesionali euskarazko zirkuito duin bat segurtatzea eta herri guneetan kulturaren sorkuntza berriak eguneroko arnasan txertatzea du helburu.



**Ekainaren erdialdean Txokoan hitzaldi interesgarria izan genuen. Partaideak ere ez ziren hala-holakoak. Alfonso Martinez EHUKo filosofia irakaslea, Jon Sarasua eta Bittor Kapanagak euskal herritarren jatorria izan zuten hizpide. Txokora 30 bat lagun hurreratu zen hitzaldia entzutera.**

# 140 gazte euskaldun udalekuetan



Guezan Ba!, Olgetan eta Bagabiz gazte taldeak eta Berbarok antolatutako euskaldunentzako udalekuak arrakasta handia izan du aurten. 8 urtetik 13ra bitarteko 70 gazte joan dira Oronoz-Mugairira beste Lasarteko 20 gaztetxorekin batera hamabostaldia pasatzen. Lekua barrez ezaguna izango dute beraietako askok iaz ere leku berean izan ziren eta.

Bigarren kanpamendua Bakiotik Oronoz-Mugairiraino oinez doana da, 14-16 urte bitartekoentzako prestatua. Irteera honetara ere 40 gazte etorri dira Durangaldeko hainbat herritik. Boletin hau idazten unean Zumaian daude eta honezkero puentina egin dute, piraguatan ibili dira, Mago Txang izan dute eta beste ekitaldi eta tailer batzuk egin dituzte.

